

2020. URTEAN BIDE-AZPIEGITURETAN BERRIKUNTZA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA ONESTEN DITUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN TESTUARI DAGOKION ENTZUNALDIAREN ETA JENDAURREKO INFORMAZIOAREN IZAPIDEAREN EMAITZEI BURUZKO MEMORIA.

Indarrean dagoen araudia eta, zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenak prestatzeko prozedura arautzen duen 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeko:

- 2020ko martxoaren 4an Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunea izapidetzeko prozesuen atalean argitaratu zen Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak 2020. urtean bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen foru dekretuaren proiektuaren aurrerapenari buruzko aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea. Behin epe hori amaituta erantzunik ez zela egon egiaztatu zen eta martxoaren 20an aurretiazko kontsulta publikoaren izapidearen emaitzei buruzko memoria egin zen.
- 2020ko martxoaren 25ean argitaratu zen Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak 2020. urtean bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen foru dekretuaren proiektuaren entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea, Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriaren izapideen atalean.
- 2020ko martxoaren 27an, partaidetzako webgunean alegazioak aurkezteko epearen luzapena iragarri zen, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren (465/2020 EDak horri dagokionez egin duen idazkuntzan) arabera onartutako sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko

MEMORIA SOBRE LOS RESULTADOS DEL TRAMITE DE AUDIENCIA E INFORMACIÓN PÚBLICA RELATIVA AL TEXTO DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL POR EL QUE SE APRUEBAN LAS BASES REGULADORAS Y LA CONVOCATORIA DE LAS SUBVENCIONES PARA LA PROMOCIÓN DE LA INNOVACIÓN EN LAS INFRAESTRUCTURAS VIARIAS 2020

En cumplimiento de lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia:

- Con fecha 4 de marzo de 2020 se publicó, en el apartado de procesos de tramitación de la web de la Diputación Foral de Bizkaia, el trámite de consulta pública previa del avance del proyecto de Decreto Foral por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones para la promoción de la innovación en las infraestructuras viarias 2020. Una vez finalizado el plazo, se constató que no hubo respuestas y el 20 de marzo se realizó la memoria sobre los resultados del trámite de consulta pública previa.
- Con fecha 25 de marzo de 2020 se publicó en el apartado de procesos de tramitación de la web de la Diputación Foral de Bizkaia el trámite de audiencia e información pública del proyecto de decreto foral regulador de las subvenciones para la promoción de la innovación en las infraestructuras viarias 2020.
- Con fecha 27 de marzo de 2020 se anuncia, en la web de participación, la prórroga del plazo de presentación de alegaciones debido a la suspensión de términos e interrupción de los plazos para la tramitación de los procedimientos de las entidades del sector público, aprobados por Real Decreto 463/2020,

epemugak bertan behera uzteagatik eta epeak eteteagatik (COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko du dekretu horrek).

- Apirilaren 21ean, xedapen honen presazko izapidetzea bidezkoa dela adierazten duen Foru Erabakia onartu zen, eta egun horretan amaitutzat jo zen Foru Dekretu proiektuaren zirriborroari Entzunaldi Publikoaren bidez erantzunak jasotzeko epea.

Aurrekoa kontuan hartuta, iruzkinak jasotzeko epeak amaitutzat jo eta ez zen inolako alegazio edo oharrik aurkeztu.

Hala ere, COVID-19 eta ondoriozko alarma-egoera sartzeak egonkortasun-egoeran eta plangintza ekonomiko orokorrean eragindako inpaktua kontuan hartuta, Dekretu honen helburua da Bizkaiko ekonomiaren eremuan sortutako krisiak eragindako ondorio negatiboak arintzen laguntzea. Zehatzago esanda, azpiegituren sektoreko eragile ekonomiko ahulenei, hala nola mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei, laguntzak eta baliabideak helarazteko tresna eta bide gisa balioko du, eta aurreikusi ezin diren ezohiko egoera horietan enpresa horien guztien berrikuntza-ekimenen garapena bermatzeko aukera emango du.

Horren ondorioz, Dekretuaren zirriborroaren xedea zabaldu egiten da (bere 1. artikuluan), eta, horrez gain, bereziki eragile ekonomiko ahulenen kasuan, besteak beste mikroenpresetan eta ETEetan, Covid-19ak ekonomiaren arloan eragindako krisiaren ondorio negatiboak arintzen laguntzen da.

de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19 (en su redacción dada por el RD 465/2020).

- Con fecha 21 de abril se aprueba el Acuerdo Foral que declara la procedencia de la tramitación urgente de esta disposición, dando por finalizado en dicha fecha el plazo para recibir respuestas al borrador de proyecto de Decreto Foral mediante el mecanismo de Audiencia Pública.

Teniendo en cuenta lo anterior, se procede a dar por concluido el plazo para recibir aportaciones, no habiéndose recibido alegación u observación alguna.

No obstante, y teniendo en cuenta el impacto generado en el escenario de estabilidad y planificación económica general por la irrupción del COVID-19 y el Estado de Alarma consecuente, este Decreto pretende contribuir a aliviar las consecuencias negativas provocadas por la crisis derivada en el ámbito de la economía de Bizkaia. En concreto, servirá de instrumento y cauce para la transmisión de ayudas y recursos hacia aquellos agentes económicos más vulnerables del sector de infraestructuras, como las microempresas y pymes, ofreciendo la oportunidad de asegurar el desarrollo de sus iniciativas de innovación en estas circunstancias extraordinarias no previsibles.

Como consecuencia, se amplía el objeto del borrador de Decreto (en su artículo 1) a contribuir, adicionalmente, a aliviar las consecuencias negativas derivadas de la crisis provocada por el Covid-19 en el ámbito de la economía, con especial efecto en los agentes económicos más vulnerables como microempresas y pymes.

Sin./Fdo.: JON ERAIMUNDA LARREA ARRUTIA - 2020-04-28

BERRIKUNTZA BAZTEKIN ONARTZEAREN DEDUKAZIEN TESTU NAGUSIAREN BARRIKATZA  
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE INNOVACIÓN Y GESTIÓN Y VARI

arazteko epea proiektu izapidetzen jarraitzea.

En consecuencia se estima oportuno continuar con la tramitación del proyecto de texto normativo propuesto.